



FORU AGINDUA

Kirol Zerbitzua
Esp. zk.: 18 D 04

Aldez aurreko onespena ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektuari, zeinak onesten baititu Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia 2018-2019 kanpainarako.

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie, bakoitzaren lurralde eremuan, autonomia erkidegoan eskola kirolaren gaian dagoen araudia garatzea eta gauzatzea, azken eginkizun honetan udal administrazioarekin koordinaturik.

Halaber, lege horrek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteko programak egin, onetsi eta betearaztea, xedapen horietan jasotzen diren jarraibideen arabera.

Eskola kiroleko programak bideratuta egongo dira haurren eskola heziketa integrala osatzera, ikasleen nortasuna harmonikoki garatzera, baldintza fisiko eta osasun baldintza egokiak lortzera, eta, urteak aurrera joan ahala, kirola egiten jarrai dezaten prestatzera.

Arabako Foru Aldundiaren esparruan, Euskara, Kultura eta Kirol Saila da eskola kiroleko programak egin, onetsi eta betearazteko ardura duena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinaren bidez onetsi baitzen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala. Saileko diputatuak erregelamendu ahala egikaritzeko eskumena du, bere sailari dagozkion gaietan.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ekainaren 8ko 185/2018 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen prozedura has zedila Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektu hau lantzeko: Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia onestea 2018-2019 kanpainarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura onesten duenak, bere I. eranskineko 12. artikuluan arautzen duenez “testu arauemaileen proposamenak idatzi ondoren, prozedura hasteko ebazpena eman duen organoaren aurretiazko onarpenera jaso beharko dute proposamenok, bidezkoak diren negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideei ekin baino lehen.”

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektuari, zeinak onesten baititu Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia 2018-2019 kanpainarako. Proiektu hori foru agindu honen eranskinean ageri da.

Bigarrena.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektu honen prozeduraren instrukzio izapideekin jarraitzea: Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia onestea 2018-2019 kanpainarako. Izapide horiek Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan egingo dira, Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak hala eskatuta.



ERANSKINA

FORU AGINDUA

Kirol Zerbitzua
Esp. zk.: 18 D 04

Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programari eta hura arautzen duen araudiari 2018-2019 kanpainarako.

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie, bakoitzaren lurralde eremuan, Autonomia Erkidegoan eskola kirolaren gaian dagoen araudia garatzea eta gauzatzea, azken eginkizun honetan udal administrazioarekin koordinaturik.

Halaber, lege horrek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteko programak egin, onetsi eta betearaztea, xedapen horietan jasotzen diren jarraibideen arabera.

Eskola kiroleko programak bideratuta egongo dira haurren eskola heziketa integrala osatzera, ikasleen nortasuna harmonikoki garatzera, baldintza fisiko eta osasun baldintza egokiak lortzera, eta, urteak aurrera joan ahala, kirola egiten jarrai dezaten prestatzera.

Arabako Foru Aldundiaren esparruan, Euskara, Kultura eta Kirol Saila da eskola kiroleko programak egin, onetsi eta betearazteko ardura duena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinaren bidez onetsi baitzen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala. Saileko diputatuak erregelamendu ahala egikaritzeko eskumena du, bere sailari dagozkion gaietan.

Xedapen hau Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekainaren 8ko 185/2018 Foru Aginduaren bidez hasi zen lantzen, eta, ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ...aren.....(e)ko .../2018 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen alde aurreko onespena ematea proiektuari. Halaber, alde aurreko kontsulta publikoa eta entzunaldia egin dira, jendaurrean jarri da, arau eraginaren txostena eta kontrol ekonomiko eta araugintzazko txostena egin dira, eta legezketasun kontrola igaro zaio.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren zenbait printzipio eta teknika ezarri ditu, oinarritzko jotzen dituenak. Hori dela eta, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan eta administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudian jasotzen diren arauketa onaren printzipioak betez, dekretu hau izapidetzean begiratu egin dira printzipio horiek; hain zuzen, beharrian, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun, eta efizientziaren printzipioak.

Programa hori eta hura 2018-2019 eskola kirolaren kanpainarako arautzen duten arauak onesteko premiak badu arrazoi bat, eta da Arabako Foru Aldundiari dagokiola eskola kiroleko urteko



programak egin, onetsi eta gauzatzea, halaxe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak. Proposatutako arauketa da hori bermatzeko tresnarik aiposena.

Proporzionaltasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketak eskubideak esleitzen dizkie pertsona administratuei, bai eta betebeharrak ezarri ere. Ase nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak jasotzen ditu, eskubideak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileei betebeharrak gutxiago ezartzen dizkion beste neurririk ez dagoela egiaztatzen ondoren.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, proposatutako arauketa ez baita kontraesankorra Europar Batasuneko zuzenbidearekin konparatuz gero, ezta gainerako ordenamendu juridikoarekin alderatuta ere. Nahikoa justifikatua gelditzen da bai ordenamendu juridikoan sartzen dela bai hura ematen duen organoa horretarako gaitua dagoela.

Gardentasun printzipioaz den bezainbatean, kontuan izan behar da kasu honetan beharrezkoa dela alde aurreko kontsulta publikoko, entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapideak egitea, 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinak xedatutakoarekin bat etorritik. Behin onetsi ondoren, ALHAOn argitaratuko da, denek jakin dezaten, eta hura eta hura egiteko agiriak kontsultatzeko moduan jarriko dira, gardentasunari buruzko araudiaren arabera.

Eraginkortasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketa horrek, duen izaeragatik, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarrikerik ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra.- Onspena ematea Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programari eta hura arautzen duen araudiari 2018-2019 kanpainarako. Hona hemen zehaztuta (foru agindu honen eranskinetan ageri dira):

- Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren programa irabazteko xederik gabeko erakundeentzako, 2018-2019ko kanpaina (I. eranskina).
- 2018-2019 kirol partaidetzako ibilbidearen barneko hastapenetako jarduerak, aisialdikoak, kirol zein kultura jarduerak eta lehiaketa aldatuak arautzen dituen araudia (II. eranskina).
- Errendimenduaren hastapenen ibilbidearen barneko antzemate jardueren, teknifikaziozkoen eta errendimendu lehiaketaren araudia.
- Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako izen-emateen, baimenen eta egoera berezien araudia (IV. eranskina).
- Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainaren barruan erakunde laguntzaileek parte hartzearen araudia (V. eranskina).



- Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako programaren barruan, irabazteko xederik gabeko erakundeen joan-etorrietarako araudia (VI. eranskina).
- Prozedura arautzea Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeei baimena emateko 2018-2019 kanpainan eskola programaren barruan ez dauden kirol jarduerak antolatzeko eta eskola adineko kirolariek haietan parte hartzeko (VII. eranskina).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Gaitzea

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendariari ahalmena ematea foru agindu hau betearazteko beharrezkoak diren baimenak jaulki ditzan.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.



Foru aginduaren I. eranskina

Eskola kiroleko programa Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeentzat, 2018-2019 kanpaina.

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren eskola kirolari buruzko Dekretuan ezarritakoaren arabera (125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa), Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteko programak egin, onartu eta betearaztea, xedapen horietan jasotzen diren jarraibideen arabera.

1. - Xedea

Eskola kirola da, Euskadiko Kirolari buruzko Legean ezarritakoaren ariora (14/1998 Legea, ekainaren 11koa), eskola umeek nahitaez eskolaratzeko aldian eta eskolaz kanpoko ordutegietan egiten duten kirol jarduera antolatua.

Jarduera horiek eskaintzen dira eskolako hezkuntza integrala osatzearren, nortasunaren garapen harmonikoa eragitearren, eta eskola utzi osteko urteetan kirola jarraitasunez egiteko aukera emango duten gorputz eta osasun egoera eta prestakuntza bat iristeko modua ematearren.

Eskola kirolaren praktika, funtsean, ikastetxeen bitartez egituratzen da, ikasleen gurasoen lankidetzarekin eta ikastetxearen gorputz hezkuntzako mintegiaren parte hartzearekin. Era berean, baimena ematen da klubek, kirol elkarteek eta abarrek ere parte har dezaten.

Kirol federazioen ardura izango da —haiena funtsean— eskola kiroleko lehiaketa programak antolatu eta egikaritzekoan aholkularitza teknikoa eta lankidetzak ematea.

Kirol federazioek ezingo dute izapidetu ez eman 2005ean edo ondoren jaiotako eskola umeentzako lizentziarik, salbu Arabako Foru Aldundiaren berariazko baimena lortzen badute, aldeztatik eskaria eginik.

Toki erakundeek, funtsean, lagunduko dute behar bezala gauzatzen eskola kiroleko programa, udalen kirol ekipamenduak ikastetxeei eta arabar kirol federazioei lagata, bereziki eskola kiroleko instalazio nahikorik ez dagoenean parte hartzaileen kopuru handiagatik edo kirolgune espezifikokoak behar izateagatik.

Eskola ume minusbaliatuak hezkuntza sistema normalizatuan sartuko badira, aukera eman behar zaie kirola egin dezaten beren eskola-kideekin, ahal delarik. Horretarako, araudien edukiak egokitu egin behar zaizkie eskola ume horien beharrezan, integrazioa egia bihurtzeko.

Eskola kirolaren filosofia betetzearren, eskola umeak ezingo dira diskriminatu hautaketa prozesuen bidez. Era berean, parte hartzen duten erakunde guztiek hitz eman behar dute errespetatuko dituztela eskola kirolaren hezkuntza printzipioak; orobat bete beharko dute eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako baimenak eta kausa bereziak arautzen dituen araudian ezarritakoa.

Ikastetxeek, gainera, eskualdeko kirol klubekiko lankidetzak bideratu ahal izango dute, hartara, lehenbiziko adinetan, kirol klubetako zerbitzu teknikoek parte har dezaten eskola umeak kirolaren hastapenetan gidatzeko orduan, ikastetxeak ezarritako hezkuntza helburuekin bat etorritik.



Era berean, ikastetxeek lagundu egin behar dute eskola umeek kirol klubetan sartzeko aukera izan dezaten adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, bermatzearen kirolaren praktikak jarraipena izan dezan eskolaratze aldia amaitutakoan, dela kirol federatua edo aisialdiko kirolean.

2. - Eskumenak

Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteroko programak egin, onartu eta egikaritzea. Hala ere, betez gero erregelamenduz ezarritako baldintzak, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimena eman dezake eskola kiroleko programan aurreikusten ez diren kirol lehiaketak antolatzen, federatutako lehiaketetan parte hartzeko eta kirol modalitate batzuetan teknika hobetzeko unitateak garatzeko.

3. - Kategoriak, jaioturteak eta aplikazio eremua

Kategoria	Jaiotza urtea	Eskola kirola	Aplikazio eremua.
Benjamin aurrekoa (1. urtea)	2012	Lehen Hezkuntzako 1.a	Tokikoa
Benjamin aurrekoa (2. urtea)	2011	Lehen Hezkuntzako 2.a	Tokikoa
Benjamina (1. urtea)	2010	Lehen Hezkuntzako 3.a	Lurraldekoa
Benjamina (2. urtea)	2009	Lehen Hezkuntzako 4.a	Lurraldekoa
Kimua (1. urtea)	2008	Lehen Hezkuntzako 5.a	Lurraldea / Autonomia erkidegoa
Kimua (2. urtea)	2007	Lehen Hezkuntzako 6.a	Lurraldea / Autonomia erkidegoa
Haurra (1. urtea)	2006	DBHko 1.maila	Lurraldea / Autonomia erkidegoa Estatua
Haurra (2. urtea)	2005	DBHko 2. maila	Lurraldea / Autonomia erkidegoa Estatua
Kadetea (1. urtea)	2004	DBHko 3. maila	Lurraldea / Autonomia erkidegoa Estatua



Kadetea (2. urtea)	2003	DBHko 4.maila	Lurraldea / Autonomia erkidegoa Estatua
--------------------	------	---------------	---

4. - Ibilbideak eta kirol jarduerak

Eskola kirolari buruzko 125/2008 Dekretuak ezartzen duenaren ariora, eta kontuan hartuz gure lurraldearen errealitatea, Arabako Lurralde Historikoan 2018-2019 kanpainen gauzatzekoak diren ibilbide eta jarduerak honako hauek izango dira:

Ibilbidea	Jarduerak
Kirol partizipazioko ibilbidea	<ul style="list-style-type: none"> - Hastapen jarduerak - Aldatutako lehiaketak - Aisialdiko jarduerak - Kultur eta kirol jarduerak
Errendimenduaren hastapenak ibilbidea	<ul style="list-style-type: none"> - Antzemate jarduerak - Teknikak hobetzeko jarduerak - Errendimenduaren hastapeneko lehiaketak

5. - Parte hartzeko egiturak

5.1.- Ikastetxeak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartutakoak badira eta, egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukirik, derrigorrezko hezkuntzari dagozkion mailetan irakaskuntza ofizialak eskaintzen badituzte.

Ikastetxeek berek zuzenean eman dezakete izena, edo berekin lotura duten irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez (Ikasleen Gurasoen Elkarte, kirol elkarte, klub, eskola kirola kudeatzeko egitura eta abarren bitartez), denak ere legez eratuak badira eta Eusko Jaurlaritzaren dagokien erregistroetan erregistraturik badaude.

5.2.- Araban egoitza duten irabazteko xederik gabeko erakundeek, hala nola, klubek, kirol taldeek, elkarteek, federazioek, kirol fundazioek eta horrelakoek, eskola kiroleko 2018-2019 kanpainen parte har dezakete, berariaz baimenduko diren kirol modalitate eta kategorietan, baldin



eta behar bezala eraturik badaude eta Eusko Jaurlaritzako dagokien sailetan erregistratuta badaude.

6. - Programaren iraupena

Eskola kiroleko 2018-2019 programa 2018ko irailaren 1a eta 2019ko abuztuaren 31 bitartean gauzatuko da.

Hala ere, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak bere esku izango du beste hasiera eta amaiera data batzuekiko jarduerak baimentzea edo antolatzea.

7. - Ikastetxe eta irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programa garatzeko araudia.

- Kirol partaidetzako ibilbidearen barneko hastapenetako jarduerak, aisialdikoak, kirol zein kultura jarduerak eta lehiaketa aldatuak arautzen dituen araudia. (II eranskina)

Kirol partaidetzako ibilbidearen helburu nagusia da eskola umeak, hala nahi badu, egin dezala kirola eta gorputz ariketa, ezagut ditzala era bateko eta besteko kirol modalitateak eta har ditzala kirola egiteko ohitura eta biziera osasungarri bat. Horri begira, hainbat jarduera garatzen dira ibilbide horren barruan.

- Errendimenduaren hastapenetako ibilbidearen barneko antzemate jarduerak, kirol teknika hobetzekoak eta errendimendu lehiaketak arautzen dituen araudia (III eranskina).

Errendimenduaren hastapeneko ibilbidearen helburua da eskola umei aukera ematea, hala nahi badute, hasteko errendimendua eta kirol helburuak gainditzea xede dituen kirol praktika batean hasteko.

- Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako izen-ematea, baimenak eta egoera bereziak arautzen dituen araudia (IV eranskina).

Arabako eskola kirolaren kanpainan parte hartu nahi duten erakunde guztiek eman behar dute izena Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailean, dagozkion agiriak aurkeztuta.

Eskola kirolaren 2018-2019 programaren barruan baimenak eskatzeko bete behar diren gutxienerako baldintzak arautzen dira, bai eta gerta daitezkeen kasu berezien aurrean jokatzeko modua ere.

- Erakunde laguntzaileen parte hartzea arautzen duen araudia (V eranskina).

Eskola kirolaren 2018-2019 kanpainan garatzekoak diren jarduerak garatzeko, esperientzia frogatua duten irabazteko xederik gabeko erakundeek laguntza teknikoa emango dute kirol antolakuntzaren, antolakuntza teknikoaren, prestakuntzaren antolakuntzaren arloetan eta abarretan.

- Eskola kiroleko joan-etorriei buruzko arautegia (VI eranskina).



Hemen arautzen dira, 2018-2019 kanpainarako, eskola kiroleko programaren barruan Arabako Lurralde Historikoan gauzatzekoak diren joan-etorrietarako eskabideak egiteko sistemak, egoitza Arabako Lurralde Historikoan izanik kanpainan izena emanda dauden erakundeentzat.

- -Baimenak emateko prozedura, 2018-2019 programan sartuta ez dauden kirol jarduerak antolatzeko eskola adinean diren kirolarientzat eta haietan parte hartzeko (VII eranskina).

Eskola adinean diren kirolarientzat 2018-2019 kanpainako eskola kiroleko programan sartuta ez dauden jarduerak antolatzeko eta haietan parte hartzeko, baimena behar da, eta baimen hori emateko prozedura arautzea da xedea.

8. - Aseguruak

Arabako Foru Aldundiak honako aseguru motak egingo dizkie eskola kiroleko programetan aurreikusitako kirol jarduera guztietako parte hartzaileei:

- a) Osasun laguntzako aseguru, baldin parte hartzaileak ez badauka halakorik beste arrazoi batengatik. Aseguru horren onuradun izateko, kirol jarduna hasi baino lehenago eskatu beharko du, eskaera arrazoitu eta dokumentatuko duelarik.
- b) Erantzukizun zibileko aseguru.
- c) Galera anatomiko edo funtzionalengatik edo, aseguru legeriak onartzen dituen kasuetan, parte hartzailearen heriotzagatik kalteak ordaintzeko aseguru.

Eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko sistemetako batean parte hartzen duten guztiek aseguru poliza bat edukiko dute, B) eta C) ataletan eskatutako estaldura bermatzen diona

Eskola kiroleko kanpainan inskribaturiko erakunde orok aseguruaren berriazko ezaugarriak ezagutarazi beharko dizkie parte hartzaileei, eta bereziki adingabekoen legezko ordezkari, batez ere honako datu hauek aipatuz: aseguruaren estaldura sistema, parte hartzailea inskribatuta dagoen erakundearen antolamendu ezaugarriak, eta egiten duten kirol jarduera erabat ezagutzeko interesgarriak izan daitezkeen datu guztiak.

Eskola kirolaren 2018-2019 kanpainan izena emandako erakundeek nahitaez jakinarazi behar dute jardueretan egindako aldaketa oro, bai eta jardueren amaiera ere, eta, hala balegokio, orobat jakinarazi behar dituzte jarduera horietan izena emandako eskola umeen altak eta bajak, parte hartzaileen datu baseak eguneraturik edukitzearen eta datu base horiek eskola kirola babesten duen aseguruaren eskura izan daitezen.

9. - Publizitatea

Eskola kiroleko programa hau ALHAOn argitaratu behar da, eta ahalik eta zabalkunde handiena eman behar zaio.

10. - Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak deialdi honen garapenerako bidezkoztat jotzen diren garapen ebazpenak emango ditu.



11. - Interpretazioa

Araudi hau interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak argituko du.

12. - Errekurtsoak

Aukera izango da inpugnatzeko eskola kiroleko programa hau eta beraren ondorioz sortutako administrazio egintza oro, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

13. - Azken xedapenak

13.1. 2018-2019 eskola programan izena ematen duten erakunde guztiek betebeharra izango dute baldintza orokorrak edo kasuan-kasuan aipatzen direnak onartzeko, eta, halaber, programa edo proiektu onartua ikuskatu, nola garatzen den zaindu eta egiaztatzearen Euskara, Kultura eta Kirol Sailak izendatzen dituen pertsonen presentzia onartzeko.

Horretarako, izena emandako erakundeek konpromisoa hartzen dute gauzatutako jarduerak direla-eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak helarazteko.

13.2. Bizkaiko eta Gipuzkoako kirol erakundeek, beren kokagune geografikoa edo kirol tradizioa direla eta, baldin Arabako Foru Aldundiak antolatutako eskola kiroleko 2018-2019 kanpainen programatzen diren jardueretan parte hartu nahi badute —beti ere, ezarritako eskakizunak betetzen badituzte (kategoria, berariazko kirol mota eta abar)—, idatziz eskatu beharko diote Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari. Hartara, beren lurralde historikoetako eskola kirolaren arloko organo arduradunen baimena aurkeztu beharko dute nahitaez.

Baldin Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko kirol erakundeek, beren kokagune geografikoa edo kirol tradizioa direla eta, Arabako Foru Aldundiak antolatutako eskola kiroleko 2018-2019 kanpainen programatzen diren jardueretan parte hartu nahi badute —beti ere ezarritako eskakizunak betetzen badituzte (kategoria, berariazko kirol mota eta abar)—, idatziz eskatu beharko diote Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari. Hartara, beren probintzia edota autonomia erkidegoko eskola kirolaren arloko organo arduradunen baimena aurkeztu beharko dute nahitaez.

13.3. Parte hartzen duten erakundeek beren gain hartzen dituzte jarduerak egiteak eragin ditzakeen era guztietako erantzukizunak.

13.4. Eskola kirolaren arloan indarrean dauden xedapenak ez badira betetzen, zehapen edo administrazio erantzukizuna eskatu ahalko da ekainaren 11ko 14/1998 Legean, Euskadiko kirolarenean, eta hura garatzeko araudian ezarritakoa oinarri.

13.5. Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainen izena eman duten erakundeak behartuta daude egiaztatza, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboaren bidez, beren antolamenduaren eremuan adingabeekin lanean diharduten profesionalak eta boluntarioak ez daudela kondenatuta epai irmo bidez sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurkako



delituengatik, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren, adingabearen babes juridikoarenaren, 13.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Foru Aginduaren II. eranskina

Kirol partaidetzako 2018-2019 ibilbidearen barneko hastapenetako jarduerak, aisialdikoak, kirol zein kultur jarduerak eta lehiaketa aldatuak erregulatzen dituen araudia.

1. - Xedea

Arabako Lurralde Historikoan egingo den eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan kirol partaidetzako ibilbidearen barneko hastapenetako jarduerak, aisialdikoak, kirol zein kultur jarduerak eta lehiaketa aldatuei buruzko arauak ezartzea.

Kirol partaidetzako ibilbidearen xede nagusia da nahi duen ikasleak kirola edo jarduera fisikoa egin, zenbait kirol mota ezagutu eta kirol ohitura eta bizimodu osasungarria izan ditzala. Horretarako, zenbait jarduera garatzen dira ibilbide honetan.

2. - Parte hartzen duten erakundeak

2.1. Ondokoek har dezakete parte: derrigorrezko irakaskuntza ofizialeko eskolak ematen dituzten Arabako Lurralde Historiko ikastetxeek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren oniritziarekin eta horretan aritzeko onartuta daudela.

Ikastegiak zuzenean inskriba daitezke, eta haiekin lotura duten irabazteko xederik gabeko erakundeek bitartez ere inskriba daitezke (IGEak, elkarteak, klubak, eskola kirola kudeatzeko egiturak, etab.; legez eraturata egon behar dira).

2.2. Irabazteko xederik gabeko erakundeek ere parte hartu ahal izango dute (klubek, elkarteek eta abarrek), behar bezala eratu eta Arabako Lurralde Historikoan egoitza izanik Eusko Jaurlaritzaren dagozkien sailetan izena emanda daudenak.

3. - Hastapenetako jarduerak, aisialdiko jarduerak, kirol jarduerak eta kultura jarduerak

Lehiaketetan parte hartzera bideratuko ez diren hainbat kirol modalitate irakasteko jarduerak, horietan parte hartu nahi duten ikasle guztientzat eskaintzen badira eta kirola egiteko gaitasuna dela-eta inolako murrizketarik ez badago.

Honelakoetan inskribatutako taldeek eta kirolariek ezin izango dute parte hartu lehiaketa ofizialetan 2018-2019 ko Arabako Eskola Jokoetan.

Arautegi honen gaia diren jarduerak eskola orduetatik kanpo egin beharko dira nahitaez.

Ikasturte hasieran, hastapenetako jarduera guztiei buruzko informazioa bidaliko da batera, jarduera bakoitzaren ezaugarriak eta horietan parte hartzeko arauak azalduta bertan. Halere, kirol



mota bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuta, ikasturtean zehar zirkularrak bidali ahal izango dira informazio hori gehitzeko.

Inskribatutako ikasleen hezkuntza osoa lortu behar da kirol jardueren bitartez, hau da, aldi berean beren kirol formakuntza osatzeko eta ondo pasatzeko aukera izango dute.

3.1. Jarduera
motak:

a) Kirolar
en hastapeneko jarduerak. Atal honen barruan, honako jarduera hauek sartzen dira:

A1 Kirol jarduerak nahasian: gorputz hezkuntza, kirol modalitate jakin baten praktika espezifikoan hasi gabe. Motrizitate praktikak eta kirol modalitate jakin bat ikasteko trebetasunak eskuratzea lehentasunezkoa duten jarduerak. Ikasturtean zehar kirol modalitate batean eta bestean hastea.

- Erakundeak: Ikastetxeak
- Kategoriak: Benjaminurrekoak, benjaminak eta
kimuak

- Baldintzak:
- Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko
programan izena emanda egon beharko dute.
- Horrelako jarduerak egiten dituzten zentroek proiektua edo
programa aurkeztu beharko dute horretarako diseinatutako agirian, zehatz adierazita zein diren adin tarte horretako hurrekin egingo diren jarduerak.

- Jarduera hori bi erataro planifikatu ahal izango da:
A1.1 Kirol jarduerak nahasian A: Asteko saio bakoitzean, bakoitzarentzat prestatutako eduki espezifikoak lantzen dira. Eduki/modalitate bakoitzerako saio kopurua berdina da. Saioak aste barruan baino ez dira egingo, eta asteburuetan ez da lehiaketarik izango. Talde horiek Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeek antolatutako topaketetan parte hartu ahal izango dute.

A1.2 Kirol jarduerak nahasian B: Kirol modalitate bakarrari eman ahal izango zaio lehentasuna, eta jarduera horren edukiak gainerako jarduerenak baino gehiago landuko dira. Lehentasunezko kirol modalitate horretarako proposatzen diren saioen kopurua ezingo da izan ikastaro guztirako saioen ehuneko 50 baino gehiago. Aukera honetan, topaketak egin ahal izango dira kirol modalitate bera egiten duten beste talde batzuekin. Aukera hau hilean larunbat batean egin ahal izango da. Talde horiek Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeek antolatutako topaketetan parte hartu ahal izango dute.



- Kiroel jarduerak nahasian egiteko taldeak inskribatzen dituzten erakundeek memoria bat aurkeztu beharko dute 2018ko azaroaren 30a baino lehen. Memoria horretan, talde bakoitzaren plangintzari eta gauzatuko dituen edukiei buruzko datu guztiak eskatuko dira. Erakundeek agiria behar bezala beteta aurkezten ez badute, taldeak ez dira baliozkotzat joko.

A2 Kiroel bakarreko jarduerak (lehiarik gabe): kirol jarduera bakarra egingo da 2018-2019ko Eskola Kiroleko Kanpainak irauten duen aldi guztian zehar:

- Erakundeak: ikastegiak (IGEak...) eta irabazteko xederik gabeko erakundeak (klubak...)
- Kategoriak: benjaminurrekoak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.
- Baldintzak:
 - Lurraldeko talde guztiak eskola kiroleko programan izena emanda egongo dira.
 - Jarduera horiek ez dira lehentasunezkoak izango benjamin aurrekoen eta benjaminen kategorietan, erakunde publikoekin lankidetzarik badago.

A3 Prestakuntza ikastaroak: kanpaina honen barruan Kiroel Zerbitzuak zenbait hastapen ikastaro eskainiko ditu. Ikastaro horien xede da ikastaroa eskaintzen den modalitatean inskribatuta ez dauden ikasle arabarrek zenbait kirol modalitaterekin izan dezatela lehen harremana. Ikastaro horiek Arabako kirol federazioetako langileek emango dituzte, eta haietako bakoitzaren datuak 2018-2019 kanpainan zehar zehaztuko dira.

b) Jolas jarduerak: kirol irakaskuntzako jarduera hauen helburua da trebetasuna lehiak kanpoko ohiko praktikaren bidez hobetzea eta ohiko kirol aztura osasuntsuak lehiak kanpoko kirol praktika moderatuaren bidez lortzea.

B.1 Artzikirol eta mendia.

B.2 Jarduera ludiko eta aisialdikoak (lehiaketarik gabeak), erritmoa eta musika oinarri dutenak, eskola kiroleko 2018-2019 kanpainak irauten duen aldi guztian zehar egitekoak:

- Erakundeak: ikastetxeak (ikasleen gurasoen elkarteak,...)
- Kategoriak: haurrak eta kadeteak.
- Baldintzak:
 - Jarduera horiek ikastetxe esparruan egingo dira, salbu eta Kiroel Zerbitzuari jakinarazi beharreko salbuespenak badaude.
 - Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko programan izena eman beharko dute.



Erakundeek taldeak inskribatzen badituzte jarduera ludiko eta aisialdiko eta kirol erritmoa eta musika oinarri dutenetan, egingo duten programaren memoria aurkeztu beharko dute 2018ko azaroaren 30a baino lehen. Memoria horretan zehaztu beharko dituzte plangintzari eta talde bakoitzarekin egingo diren edukiei buruzko datu guztiak. Aipatutako dokumentua behar bezala beteta entregatzen ez duten entitateen kasuan, taldeak ez dira balioztatuko.

- c) Kirol eta kultur jarduerak: kultur jarduerak dira ondoko gaiekin zerikusia dutenak: kirolen historia eta garapena, mugimendu olinpikoa edo eskola kirolari lotutako beste edozein jarduera.

3.2. Jardueren iraupena:

Eskola kirolaren 2018-2019 kanpainaren barruan, hastapenetako jarduerak, aisialdiko jarduerak, eta kirol zein kultura jarduerak 2018ko irailaren 30etik 2019ko maiatzaren 31ra bitartean egingo dira.

Jarduera hauek gutxienez bost hileko eta gehienez zortzi hileko iraupena izango dute, hastapen ikastaroek izan ezik, kasu bakoitzean finkatuko baita haien iraupena.

3.3. Adinak eta kategoriak

Kategoria	Jaiotza urtea
Benjaminurrekoak*	2012-2011
Benjaminak	2010-2009
Kimuak	2008-2007
Haurrak	2006-2005
Kadeteak	2004-2003

3.4. Taldea:

Talde bakoitzean monitore-entrenatzaile bat egon behar da gutxienez, eta ahal dela ez dira egon behar 25 kirolari baino gehiago.

3.5. Asteko lanaren iraupena:

Kirol hastapenetako jarduera hauetan (hastapenetako ikastaroak eta mendiko jolas jarduerak izan ezik) izena emandako eskola ume bakoitzak astean gutxienez 45 minutuko bi lansai egin beharko ditu kirol modalitate bakoitzean. Halaber, ezin izango dira hiru saio baino gehiago egin astean.

4. - Partaidetza lehiaketak (Arabako Eskola Kiroleko Jokoak)



Partaidetza lehiaketak dira hautaketa eskema soiletik kanpo egiten diren kirol lehiaketak.

Partaidetza lehiaketen asmoa hezkuntzakoa eta jolasekoa da batez ere, partaideen kopuruan inolako mugarik ezarri gabe. Horiek arautuz, bermatu nahi da eskola ume guztiek zenbait kirol ezagut eta egin ditzaten modu ziklikoan.

Jarduera horiek maila hauetako eskola umeentzako dira: benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

4.1.- Helburua

Arabako Eskola Kiroleko jokotzat joko dira Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak erakunde laguntzaileekin lankidetzan antolaturik Arabako Lurralde Historikoan egiten diren eskola lehiaketa ofizial guztiak.

Jokoei ekiteko behar adina parte-hartzaile egon behar da, eta kategorien artean behar bezala banatuta.

Talde edo kirolari nahiko ez badago, inskribatutakoei baimena eman ahal izango zaie inguruko lurralde historikoetako eta autonomia erkidegoetako eskola arteko lehiaketetan parte hartzeko.

4.2.- Parte-hartzaileak

2018-2019ko kanpainan, ondoko ikasleek hartu ahal izango dute parte Arabako eskola kiroleko jokoetan: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onarpenarekin Arabako Lurralde Historikoan derrigorrezko irakaskuntza ofizialeko eskolak ematen dituzten ikastetxeetan 2018-2019 ikasturtean matrikulatutako ikasleak.

Salbuespen gisa, beste lurralde historiko eta/edo autonomia erkidego batzuetatik etorritako talde eta/edo kirolariek parte hartzeko baimena eman ahal izango da.

4.3. - Erakunde parte hartzaileak

a) Ikastetxeak zuzenean inskriba daitezke, eta haiekin lotura duten irabazteko xederik gabeko erakundeek bitartez ere inskriba daitezke (legez eraturik egon behar dira). Ikastetxearen eta erakundearen arteko loturari buruzko agiria aurkeztu behar da.

Taldea sortzeko behar beste kirolari ez duten ikastetxeak hurbileko beste ikastetxe batzuekin elkartu ahal izango dira eskola kiroleko kanpainan parte hartu nahi dutenen eskaerak asetzeko.

b) Irabazteko xederik gabeko erakundeek (kirol taldeak, klubak, elkarteak, kirol fundazioak eta abar) eman ahal izango dute izena, baldin egoitza Arabako Lurralde Historikoan izanik behar bezala eratu badira eta Eusko Jaurlaritzako dagozkien Sailetan behar bezala erregistratuta badaude.

Erakunde horiek, gainera, baimenen eskaera egiteari buruz ezarritako guztia bete beharko dute, Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kiroleko 2018-2019 kanpainako programaren IV. eranskineko B idatz zatian ageri den bezala.

4.4. - Lehiaketa baldintza orokorrak



Erakunde laguntzaileek “lehiaketako araudiak” prestatuko dituzte, bai eta “lehiaketa egutegiak” ere; eta horiek guztiak Arabako Foru Aldundiak onartuko ditu.

Kategoria batzuetan eta besteetan parte hartzea deialdiko kirol modalitate bakoitzerako arau espezifikoen arabera izango da.

Arabako Foru Aldundiak baimena eman dezake jarduera batzuk (txirrindularitza....) egutegi orokorrean kanpoko data eta egutegietan egiteko.

Asteko lanaren iraupena: Inskribatutako eskola ume bakoitzak gutxienez 45 minutuko bi lansazio egin behar ditu astean kirol modalitate bakoitzean. Lehiaketa saioak ez dira hartuko lan saioetatik.

Ondoko egunak ez dira baliokidun izango:

- 2018ko urriak 12
- 2018ko azaroak 1
- 2018ko abenduak 6 eta 8
- 2018ko abenduak 21etatik 2019ko urtarrilak 6arte (Gabonak)
- 2019ko martxoak 4 eta 5 (Inauteriak)
- 18-28 de abril de 2019ko apirilak 18tik 28arte (Aste Santua)
- 2019ko maiatzak 1,4 eta 5

Hala ere, kasu berezietan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimena eman dezake egun ez-baliokidun horietakoren batean lehiaketak sartzeko.

4.4.1.- Benjaminen kategorian parte hartzen duten ikasleak.

Kategoria honetan, 2009 eta 2010. urteetan jaiotako ikasleak sartzen dira.

Jarduera horiek gauzatzeko egutegia egiteko, herriko eta eskualdeko egutegia ere hartuko da kontuan, nahiz eta, lurraldearen errealitateari atxikiz, lehiaketa aldatuak egin ahal izango diren lurralde arloan. Kategoria honen ezaugarri bereziak kontuan harturik, ez da sailkapenik egongo, ez eta finalik ere, eta, beraz, ez da garaikurrik emango.

Kategoria honetako egutegietan, lehiaketa jardunaldien gehieneko kopurua izango da kirol modalitatearen berariazko lehiaketa arautegian ezarritakoa.

Kirol jarduerak egiteko lehenengo egun baliokiduna 2018ko urriaren 29 izango da, eta, azkena, 2019ko maiatzaren 26a.

Kategoria honetan ez da beste mailarik egongo, hau da, ez da mutilen, nesken edo bitarikoaren taldeen artean bereizketarik egingo, eta, lehiaketarako multzoak egiterakoan, ez dio axolarik izango nola osatuta dauden taldeok.



4.4.2.- Kimuen kategorian parte hartzen duten ikasleak.

Kategoria honetan, 2007. eta 2008. urteetan jaiotako ikasleak sartzen dira.

Lehiaketa jarduerak izan daitezke tokian tokikoak, eskualdekoak eta lurraldekoak. Hurrengo faseetara (egonez gero) igarotzeko lehiaketa sistema bat antolatuko da, kirol modalitate bakoitzean Arabako txapelduna izendatu ahal izateko.

Kirol jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2018ko irailaren 30a izango da, eta, azkena, 2019ko maiatzaren 26a.

Buruz buruko kategoriako lehenengo hirurei garaikurrak emango zaizkie, gutxienez, eta taldekako kirol modalitateetako azken faseetako lehenengo biei ere bai, hala mutilen nola nesken kategoriakoei.

4.4.3.- Haurren kategorian parte hartzen duten ikasleak

Kategoria honetan, 2005. eta 2006. urteetan jaiotako ikasleak sartzen dira.

Lehiaketako jarduerak tokian tokikoak, eskualdekoak eta lurraldekoak izan daitezke. Lehiaketa sistema bat antolatuko da hurrengo faseetara igarotzeko sailkapen postuak zehazteko –halako faserik egonez gero–, hartara kirol modalitate bakoitzean Arabako talde txapelduna izendatu ahal izateko eta Euskadiko Eskola Jokoetan (2019ko maiatzan) Eusko Jaurlaritzak zehaztuko dituen kirol modalitateetan Arabako Lurralde Historikoaren ordezkari gisa parte hartu ahal izateko.

Arabako Lurralde Historikoak Euskadiko Eskola Jokoetan izango duen ordezkari, beraz, Euskadiko Eskola Jokoetan parte hartzeko arautegian eta baldintzetan ezarritakoaren arabera izango da. Arautegi hori, hala, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak jokoetan integratutako kirol modalitate bakoitzerako ezarritakoa izango da.

Kirol jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2018ko irailaren 30a izango da, eta, azkena, 2019ko maiatzaren 26a. Euskadiko eskola jokoetan izango duen ordezkaria erabakitzeko lehiaketetan, lehiaketa 2019ko maiatzaren 19an amaitu beharko da.

Buruz buruko kategoriako lehenengo hirurei garaikurrak emango zaizkie gehienez, eta taldekako kirol modalitateetako azken faseetako lehenengo biei ere bai, hala mutilen nola nesken kategoriakoei.

4.4.4.- Kadeteen kategorian parte hartzen duten ikasleak

Kategoria honetan, 2003. eta 2004. urteetan jaiotako ikasleak sartzen dira.

Lehiaketako jarduerak tokian tokikoak, eskualdekoak eta lurraldekoak izan daitezke. Hurrengo faseetara igarotzeko lehiaketa sistema bat antolatuko da –faserik egonez gero–, kirol modalitate bakoitzean Arabako txapelduna izendatu ahal izateko.

Kirol modalitate bakoitzaren berariazko lehiaketa arautegiak ezarriko du zenbat lehiaketa jardunaldi egongo diren gehienez eta gutxienez kategoria honetako egutegietan.

Kirol jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2018ko irailaren 30a izango da, eta, azkena, 2019ko maiatzaren 26a.



Buruz buruko kategoriako lehenengo hirurei garaikurrak emango zaizkie gehienez, eta taldekako kirol modalitateetako azken faseetako lehenengo biei ere bai, hala mutilen nola nesken kategoriakoei.

4.5. - 2018-2019ko denboraldiaren hasiera eta amaiera datak

Lehiaketak ezin izango dira hasi 2018ko irailaren 3a baino lehenago, ez eta bukatu 2019ko ekainaren 23a baino geroago.

Hala ere, kasu berezietan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egun horiek aldatzeko baimena eman dezake.

4.6. - Lehiaketa baldintza orokorrak

4.6.1.- Instalazioak eta materiala

Arabako Eskola Kiroleko Jokoetan parte hartu nahi duten talde guztiek kasuan kasuko kirol modalitateerako joko zelai egokia jarri behar dute, bai eta jarduerarako arauzko materiala ere. Ez balego horrelakorik, entitate laguntzaileari jakinaraziko zaio, eta honek bat eskuratuko dio.

Oro har, nork bere joko tresnak eraman behar ditu, hala taldeek nola parte-hartzaileek.

Instalazio eta/edo material berezia eskatzen duten kirol modalitate eta/edo espezialitateetan (atletismoa, igeriketa eta abar), jarduera horiek antolatzen dituen erakunde laguntzailea izango da kudeatzeko ardura izango duena.

4.6.2.- Arbitroak eta epaileak.

Arbitroak “etxean” jokatzeko duen taldeak jarri behar ditu; bestela, erakunde laguntzaileak izendatuko ditu.

Arbitraje eta kontrol sistema, berriz, kirol bakoitzeko lehiaketa arautegian ezarriko da. Arautegi hori, bestalde, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak onartuko du.

Arbitroek, kirol bakoitzeko arautegia eta arautegia betearazteaz gainera, lan pedagogikoa egin behar dute eskola kiroleko programaren espiritu “ludiko-kirolzalea” lortzeko.

Arbitroek egiaztatu eta ikuskatu behar dute ea kirolariak eskola kiroleko lizentzia banakoa badaukaten, eta lizentzia horrek kirolariaren argazki eguneratua eta guraso baten edo tutorearen sinadura ba ote dauzkan.

4.6.3. - Parte-hartzaileen jantziak.

Arabako Eskola Kiroleko Jokoetako kirol modalitate edo/eta kategoria guztietako lehiaketetan, parte-hartzaileek jantzi egokiak eta berdinak eramango dituzte, nahitaez.

Jantzietan propaganda eramatekotan, ezingo da, inolaz ere, alkohol edarien, tabakoaren edo adin horretan komeni ez diren jardueren propaganda soinean eraman, eta begiratuko da drogamenpekotasunen inguruko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean alkohol edarien eta tabakoaren publizitateari buruz xedatutakoa.



Lehiakideek kolore bereko jantziak badituzte, jardueraren garapenean nahasgarri gerta ez daitezen, talde “bisitariak” aldatu beharko ditu jantziak; dena den, gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko dute kolore berdintasunaren arazoa. Bestela, etxeko taldeak aldatu beharko ditu jantziak.

4.6.4. - Emaitzak jakinaraztea.

Partida edo lehiaketa egin eta hurrengo egun baliioduneko 20:00ak baino lehen jakinaraziko zaizkio emaitzak erakunde laguntzaileari, edo bestela, kirol modalitate bakoitzaren arautegian ezarritakoa egingo da.

4.6.5. - Lehiaketako egutegia aldatzea.

Ezinezbestean baino ezingo da aldatu lehiaketako egutegia. Hala gertatzen denean, erakunde laguntzaileari eskatu behar zaio idatziz, behar besteko aurretiaz, aurkariaren adostasuna ere frogatuz eta partida edo jokoa zein egunetan, ordutan eta tokitan jokatuko den zehaztuz.

Arau horietakoren bat edo haren zatiren bat betetzen ez bada, diziplina arautegian ez-azaltzei buruz ezarritako artikulua aplikatuko dira.

Data aldatzeak dakartzan gastuak (bidaiak, instalazioak eta abar), berriz, aldatzea eskatzen duen taldearen kontura izango dira.

4.6.6.- Lizenziak aurkeztea

Parte hartzen duten talde guztiek aurkeztu behar dute eskola kiroleko 2018-2019 ikasturteko lizentzia partida bakoitza jokatzen hasi baino lehen, behar bezala izapideturik eta jokalarik guztien argazki berriekin. Ordezkariek edo entrenatzaileek egiaztatu behar dute fitxa guztiak legezkoak direla eta agertu diren ikasleen fitxak direla.

Eskola kiroleko lizenziak guraso baten edo tutorearen sinadura eduki behar du, nahitaez. Eduki ezean, ez da legezkotzat joko. Fitxa legezkatu gabe duten jokalariek 2018-2019 kanpainako eskola kiroleko programaren onura guztiak galduko dituzte.

4.6.7. – Lehiaketa egunak.

Taldeak kiroleko, larunbat goiza izango da ohiko lehiaketa eguna.

Buruz buruko kirolak larunbat goizean edo arratsaldean nahiz igande goizean jokatzea da. Igande arratsaldeetan jokatzea, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena beharko da.

Hori gorabehera, erakunde laguntzaileek egindako eskaerei erantzunez, eta betiere Euskara, Kultura eta Kirol Sailak idatzizko baimena eman eta gero, lehen adierazitako egunetatik kanpo jokatu ahal izango dira Arabako Eskola Kiroleko Jokoetako lehiaketak.

4.6.8 Bateriaezintasunak

Areto futbola, 7ko futbola eta 11ko futbola modalitate bakarra direla joko da; kirolari batek ezin dezake parte hartu horietako bat baino gehiagotan.



Era berean, eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan parte hartzen duten ikasleek, beharrezkoa den eskola lizentzia badaukate, ezingo dute eduki federazioaren lizentziarik kirol modalitate bererako edo antzeko baterako, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak aurretik baimena eman ezean.

4.6.9. – Delegatuak

Ekipo edo talde bakoitzak ordezkari bat izendatu ahalko du, adin nagusikoa, lehian parte hartzen dutenen jardueraren arduraduna izan dadin. Honek dokumentazioa aurkeztuko du, eta arduratuko da taldeko kideek zuzen joka dezaten.

4.7 Diziplina arautegia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, kirolaren arloan honako hauek daukate diziplina ezartzeko eskumena, bakoitzak bere esparruaren barruan:

a) Lehen auzialdian, Arabako Eskola kiroleko jokoen antolamendu teknikoa gauzatzeko ardura duen entitate laguntzailearen diziplina batzordeak.

b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Batzorde horren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta errekurtsioa jarri ahal izango da haren aurka, aplikatzekoak diren jurisdikzio arauetara jarraituz.

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatutako eskola kiroleko programako jardueretan aplikatuko den diziplina araubidea, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 391/2013 Dekretuak ezarritakoari egokituko zaio (391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, Eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzkoa).

4.8. – Euskadiko Eskola Jokoetako ordezkariak

Arabako Eskola Jokoetan izena eman eta eskatutako baldintza guztiak bete ondoren, partaidetza ibilbideko lehiaketetan hobekien sailkatuta geratu diren entitateek ordezkariak izango dira Arabako Lurralde Historikoa joko horietan, dagozkien kirol modalitate edo/eta espezialitateetan, deialdian ezartzen diren kategorietan, zenbat-nahi direla ere guztira parte hartzen duten entitateak.

5. - Zein agiri aurkeztu behar diren eta nola

5.1. - Dokumentazioa

Erakundearen eta parte-hartzaileen inskripzioa

Erakundeak eta haietako kideak inskribatu behar dira, eskola kiroleko kanpainako inskripzioari buruzko arautegiari jarraituz.

Jarduerari edota parte-hartzaileei buruzko datu osagarriak eskatu ahal izango dira.

5.2. - Datuak aldatzea



Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan inskribatutako erakundeek jardueretan gertatzen diren aldaketa guztien eta haien amaieraren berri eman behar dute nahitaez, eta jarduera horietan inskribatutako ikasleen altak eta bajak jakinarazi behar dituzte, gertatuz gero.

Lehiaketa taldeetan, behin lehiaketa hasita dela, ezin izango dira aldatu jokalaria talde batetik bestera.

Foru Aginduaren III. eranskina

Errendimenduaren hastapeneko ibilbidearen barneko antzemate jarduerak, teknika hobetzekoak eta errendimendu lehiaketak erregulatzen dituen arautegia.

Errendimenduaren hastapeneko ibilbidearen xedea da eskola umeei aukera ematea errendimenduari eta kirol helburuak gainditzeari zuzendutako kirolean hasteko.

1. - Teknika hobetzeko jarduerak

Ibilbide honetan teknika hobetzeko jardueren helburua da errendimenduzko kirola egiteko gaitasuna duten eskola umeen hobekuntza tekniko, taktiko eta fisikoa lortzea. Alde horretatik, uztartu egiten dituzte kirol partaidetzako ibilbidearen jarduerak eta eskola umeak kirol errendimenduan hasteko jarduerak.

Ondorioz, atal honetan bi maila bereizten dira: lehenengo eta behin, kirol modalitate bakoitzean, kirol modalitate horretan jarduteko gaitasun gehien duten eskola umeak hautatzeko prozesuak gauzatu behar dira .

Behin hautaketa eginda, saio tekniko edo entrenamendu espezifikoak egingo dira, parte-hartzaileen adinari egokituta eta euron kirol trebetasunak –alderdi teknikoak, taktikoak, eta fisikoak– hobetzera zuzenduta. Azken honi deritzogu hertsikiago, hain zuzen, kirol teknika hobetzea.

1.1. Parte hartzeko arau orokorrak

1.1.1. Antzematea.

Antzemateko prozesuak errendimendu jarduerak hasi aurreko urtean edo bi urteetan gauzatuko dira.

Antzemate jarduera hauetan hasteko gutxieneko adina, berriz, kimuen mailako lehenbiziko urtea izango da (2008. urtean jaioak)

Federazioetako langile teknikoen ardura izango da eskola umeek errendimenduzko kirola egiteko dituzten gaitasunak neurtzeko beharrezko diren irizpideak eta frogak ezartzea.

1.1.2. Kirol teknika hobetzea



Modalitate bakoitzerako finkatzen diren antzemate prozeduren bidez hautatzen diren eskola umeentzako da, aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.

Kirol teknika hobetzeko jarduera hauekin hasteko gutxieneko adina, berriz, kimuen mailako bigarren urteari dagokiona izango da (2007. urtean jaiotakoak, alegia).

Federazioetako langileek egin eta finkatuko dituzte jardueren edukiak. Federazioetako egituren bidez garatuko dira.

Jarduerak eskolaz kanpoko ordutegian egingo dira, eta ez dute eraginik izango eskolako gainerako kirol jardueren garapenean. Kontuan hartuko dira horiek finkatzean joan-etorrietarako behar den denbora, eta abar.

1.2. Arau administratiboak

Teknika hobetzeko jardueren ardura duten federazioek hitzarmenak izenpetuko dituzte Arabako Foru Aldundiarekin. Antzematearen ardura duten federazioetako langile teknikoek, bestalde, lehiaketa jardueretan parte hartzen duten eskola umeen ikastetxeei jakinaraziko diete zeintzuk hautatu diren teknika hobetzeko jardueretan parte hartzeko.

Parte hartzeko, Arabako Foru Aldundiaren kirol lizentzia eduki behar da.

2. - Errendimenduaren hastapeneko lehiaketa jarduerak

Errendimenduaren hastapeneko lehiaketak dira eskola umeei aukera ematen dietenak errendimendua eta kirol helburuak gainditzea xede dituen kirolean hasteko.

Errendimenduaren hastapeneko lehiaketekin hasteko gutxieneko adina, berriz, kimuen mailako bigarren urteari dagokiona izango da. (2007 urtean jaiotakoak)

Edonola ere, gutxieneko adin hori betez betiere, kirol modalitate bakoitzean hasteko adina kasuan kasuko kirol federazioarekin elkar hartuta finkatuko da.

Oro har, modalitate bakoitzean, gehienez ere, jaioturte bakoitzari dagokion populazio guztiaren ehuneko 15ek parte hartuko du.

Modalitate eta maila bakoitzean finkatuko dira, kasuan kasuko kirol federazioarekin bat etorrira, aipatutako lehiaketak egituratzeko oinarritzko irizpideak, zeinak jardueretarako laguntza teknikorako lankidetzak-hitzarmenetan jasoko baitira.

2.1. - Lehiaketa baldintza orokorrak

Erakunde laguntzaileek “lehiaketako araudiak” prestatuko dituzte, bai eta “lehiaketa egutegiak” ere, eta horiek guztiak Arabako Foru Aldundiak onartuko ditu.

Kategoria batean eta bestean parte hartzea deialdiko kirol modalitate bakoitzaren arautegi espezifikoaren arabera izango da.



Asteko lanaren iraupena: inskribatutako eskola ume bakoitzak gutxienez 60 minutuko bi lansaiogin egin behar ditu astean kirol modalitate bakoitzean. Lehiaketa saioak ez dira hartuko lansaiotzat.

Ondoko egunak ez dira baliogabek izango:

- 2018ko urriak 12
- 2018ko azaroak 1
- 2018ko abenduak 6 eta 8
- 2018ko abenduak 21etatik 2019ko urtarrilak 6arte (Gabonak)
- 2019ko martxoak 4 eta 5 (Inauteriak)
- 2019ko apirilak 18tik 28arte (Aste Santua)
- 2019ko maiatzak 1,4 eta 5

Hala ere, kasu berezietan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egun baliogabe horietan lehiaketak sartzeko baimena eman ahal izango du.

- a) Eskola umeek errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartzea, bestalde, modalitate bakoitzerako finkatzen diren baldintzak betetzen dituzten kirol klub eta taldeen bidez bideratuko da.

Kasu hauetan guztietan, berriz, kirol klub eta taldeek taldeetako kideak matrikulatuta dauden ikastetxeei jakinaraziko diete zer harreman duten kide horiek klubarekin edo taldearekin.

- b) Lehiaketak itxiak izango dira, hau da, ez da igoserarik edo jaitsierarik izango errendimenduaren hastapeneko lehiaketaren eta modalitatearen partaidetza lehiaketaren artean.

Lehiaketa horietan parte hartzen duten klubek gonbidatuta parte hartuko dute, hau da, Arabako Foru Aldundiak eta modalitatearen lurraldeko kirol federazioak gonbidatuta.

Parte hartzen duten taldeen kopurua aurretik finkatuko dute lurralde federazioak eta Arabako Foru Aldundiak, kontuan izanda mailan sartuta dagoen populazio eskolaratua, modalitateko kirol lizentzia kopurua eta Arabako Lurralde Historikoan dauden klubuen kopurua. Taldeen banaketa lurraldean ikasleen banaketaren proportzioan izango da.

- c) Oro har, lehiaketa horietan parte hartu nahi duten kirol klubek edo elkarteek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Arabako kasuan kasuko kirol federazioko kide izatea.
- Taldeak edukitzea hurrenez hurrengo mailetan.
- Taldearen ardura duten langile teknikoek dagokien kirol titulazioa daukatela egiaztatzea, modalitate bakoitzerako ezarrita dagoena.



- Jarduera eskola kirolari buruzko araudiak xedatutakoari egokitzea.
- Ez egitea antzemate jarduerarik kimuen mailan eta beheragokoetan, salbu programa honetan jasotzen diren teknika hobetzeko jarduerak.

Aipatutako betekizunak betetzen ez dituen klubien batek eskatzen badu errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartzea, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak parte hartzeko baimena eman ahal dio, betiere kondizio bereziak agitzen badira eta eskabidean hala arazoitzen badira.

Beste alde batetik, ez badute betetzen eskola kirolari buruzko egungo arautegiak lehiaketa jardueren antolaketari edo parte hartzeari buruz xedatutakoa, errendimenduaren hastapeneko lehiaketetatik kanpora geratuko dira.

d) Banakako kiroletarako, kasuan kasuko federazioko batzorde teknikoak eta Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuko zerbitzu teknikoek adostu egingo dituzte errendimenduaren hastapeneko lehiaketen jardueretan parte hartzeko irizpideak.

e) Edonola ere, errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan, parte-hartzea murriztua izango da, eskola ume bakoitzaren kirol proiektzioaren irizpideetan eta lehiaketarekiko jarreran oinarrituta.

f) Errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartzen dutenek adinaren arabera dagokien mailan parte hartuko dute. Kirol heldutasunaren prozesu naturalak gordetzekotan, oro har ez da mailaz aldatzen utziko. Nolanahi ere, arrazoi tekniko, mediko eta hezkuntzazkoak direla medio, eta salbuespenez, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak mailaz aldatzeko banan-banako baimenak eman ahalko ditu.

g) Haurren mailatik aurrera, errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartzen dutenek ezin izango dute aldi berean parte hartu lehiaketa horietan eta kirol mota bereko partaidetza lehiaketetan. Horri dagokionez, futbola eta areto futbola berdinak direla joko da.

h) Behin lehiaketa hasita, ezin izango da jokalarien inskripzioa talde batetik bestera aldatu.

2.2. - 2018-2019ko denboraldiaren hasiera eta amaiera datak

Lehiaketak ezin izango dira hasi 2018ko irailaren 30a baino lehenago, ez eta bukatu 2019ko maitzaren 26a baino goiago.

Hala ere, kasu berezietan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimena eman dezake egun horiek aldatzeko.

2.3.- Instalazioak eta materiala

Arabako Eskola Kiroleko Jokoetan parte hartu nahi duten talde guztiek kasuan kasuko kirol modalitaterako joko zelai egokia jarri behar dute, bai eta jarduerarako arauzko materiala ere. Ez balego horrelakorik, entitate laguntzaileari jakinaraziko zaio, eta honek joko zelai bat eskuratuko dio.

Oro har, norik bere joko tresnak eraman behar ditu, hala taldeek nola parte-hartzaileek.



Instalazio eta/edo material berezia eskatzen duten kirol modalitate eta/edo espezialitateetan (atletismoa, igeriketa eta abar), jarduera horiek antolatzen dituen erakunde laguntzailea izango da kudeatzeko ardura izango duena.

2.4.- Arbitroak eta epaileak.

Arbitroak “etxean” jokatzeko duen taldeak jarri behar ditu; bestela, erakunde laguntzaileak izendatuko ditu.

Arbitraje eta kontrol sistema, bestalde, kirol bakoitzeko lehiaketa arautegian ezarriko da. Arautegi hori, berriz, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak onartuko du.

Arbitroek egiaztatu eta ikuskatu behar dute ea kirolariek ba ote daukaten eskola kiroleko lizentzia banakoa, eta ea lizentzia horrek ba ote dauzkan kirolariaren argazki eguneratua eta guraso baten edo tutorearen sinadura.

2.5. - Parte-hartzaileen jantziak.

Arabako Eskola Kiroleko Jokoetako kirol modalitate edo/eta kategoria guztietako lehiaketetan, parte-hartzaileek jantzi egokiak eta berdinak eramango dituzte, nahitaez.

Jantzietan propaganda eramatekotan, ezingo da soinean eraman, inolaz ere, alkohol edarien, tabakoaren edo adin horretan komeni ez diren jardueren propaganda, eta begiratuko da drogamenpekotasunen inguruko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean alkohol edarien eta tabakoaren publizitateari buruz xedatutakoa.

Lehiakideek kolore bereko jantziak badituzte, jardueraren garapenean nahasgarri gerta ez daitezten, talde “bisitariak” aldatu beharko ditu jantziak; dena den, gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko diote kolore berdintasunaren arazoa. Bestela, etxeko taldeak aldatu beharko ditu jantziak.

2.6. - Emaizak jakinaraztea.

Partida edo lehiaketa egin eta hurrengo egun baliioduneko 20:00ak baino lehen jakinaraziko zaizkio emaitzak erakunde laguntzaileari, edo bestela, kirol modalitate bakoitzaren arautegian ezarritakoaren arioz.

2.7. - Lehiaketako egutegia aldatzea.

Ezinbestean baino ezingo da aldatu lehiaketako egutegia. Hala gertatzen denean, erakunde laguntzaileari eskatu behar zaio idatziz, behar besteko aurretiaz, aurkariaren adostasuna ere frogatuz eta partida edo jokoa zein egunetan, orduetan eta tokitan jokatu den zehaztuz.

Arau horietakoren bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez azaltzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

Data aldatzeak dakartzan gastuak (bidaiak, instalazioak eta abar) aldatzea eskatzen duen taldearen kontura izango dira.

2.8.- Lizentziak aurkeztea



Parte hartzen duten talde guztiek aurkeztu behar dute eskola kiroleko 2018-2019 ikasturteko lizentzia partida bakoitza jokatzeko hasi baino lehen, behar bezala izapideturik eta jokalariek guztien argazki berriekin. Ordezkariek edo entrenatzaileek egiaztatu behar dute fitxa guztiak legezkoak direla eta agertu diren ikasleen fitxak direla.

Eskola kiroleko lizentziak guraso baten edo tutorearen sinadura eduki behar du, nahitaez. Sinadura hori falta bada, lizentzia ezin izango da legezatu. Fitxa legezatu gabe duten jokalariek galdu egingo dituzte 2018-2019 kanpainako eskola kiroleko programaren onura guztiak.

2.9. – Lehiaketa egunak.

Taldeko kiroleko, larunbat goiza izango da ohiko lehiaketa eguna.

Herri batetik bestera mugitzea eragiten duten taldeko lehiaketetan, 09:30etik 13:00etara bitartean jokatu behar dira partidak.

Buruz buruko kirolak larunbat goizean nahiz arratsaldean eta/edo igande goizean joki daitezke. Igande arratsaldean jarduerak egiteko, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena beharko da.

Hori gorabehera, erakunde laguntzaileek eskatutako eskaerei erantzunez, eta betiere Euskara, Kultura eta Kirol Sailak idatzizko baimena eman eta gero, lehen adierazitako egunetatik kanpo jokatu ahal izango dira Arabako Eskola Kiroleko Jokoetako lehiaketak.

2.10 Bateriaezintasunak

Era berean, eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan parte hartzen duten ikasleek, beharrezkoa den eskola lizentzia badaukate, ezingo dute eduki federazioaren lizentziarik kirol modalitate bererako edo antzeko baterako, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak aurretik baimena eman ezean.

2.11. – Delegatuak

Ekipo edo talde bakoitzak ordezkari bat izendatu behar du, adin nagusikoa, lehiaketa parte hartzen dutenen jardueraren arduraduna izan dadin. Ordezkari horrek dokumentazioa aurkeztuko du, eta begiratu behar du taldeko kideen jokabidea zuzena dela.

2.12.– Diziplina arautegia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, kirolaren arloan honako hauek daukate diziplina ezartzeko eskumena, bakoitzak bere esparruan:

a) Lehen auzialdian, Arabako Eskola kiroleko jokoen antolamendu teknikoaren gauzatzeko ardura duen entitate laguntzailearen diziplina batzordeak.

b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Batzorde horren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta errekurtsoa jarri ahal izango da haren aurka, aplikatzekoak diren jurisdikzio arauak jarraituz.

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatutako eskola kiroleko programako



jardueretan aplikatuko den diziplina araubidea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak ezarritakoari lotuko zaio (391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzkoa).

2.13. – Euskadiko Eskola Jokoetako ordezkariak, errendimenduaren hastapeneko ibilbidean.

Arabako Eskola Jokoetan errendimenduaren hastapenean izena eman eta eskatutako baldintza guztiak bete ondoren, hobekien sailkatuta geratu diren entitateek ordezkariak izango dituzte Arabako Lurralde Historikoa joko haietan, deialdian zehazten diren kirol modalitate, espezialitateetan eta kategorietan, zenbat-nahi direla ere guztira parte hartzen duten entitateak.

Foru aginduaren IV. eranskina

Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako inskripzioa, baimenak eta egoera bereziak arautzen dituen arautegia

Arabako eskola kiroleko kanpainan parte hartu nahi duten erakundeak Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailean inskribatu behar dira, agiri hauek aurkeztuta:

A. Inskripzioa

A.1. - Erakundearen inskripzio orria

Arabako eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan izena eman nahi duten erakundeek berariaz prestatutako orria bete eta aurkeztu behar dute. Aurreko kanpainan inskribatuta egon diren erakundeek, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak orri hau bidaliko die beteta, eta erakunde bakoitzak berretsi egin beharko ditu bertan azaltzen diren datuak eta, behar izanez gero, aldatu diren datuak zuzendu.

Inskripzio orri bat bakarrik bidali behar da Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzura.

Orri horrek, berak bakarrik ez du edukiko inolako baliorik inskripzioa gauzatzeko, gero jardura bakoitzerako eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu ezean.

Inprimaki hau Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak emango du, eta Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuan aurkeztu behar da.

Lehenengo aldiz inskribatzen diren erakundeek, inskripzio orriarekin batera, IFZren fotokopia eta banku kontuaren titulartasuna frogatzen duen banku agiriaren fotokopia aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, hasieran emandako datuetan aldaketarik izanez gero, jakinarazi egin beharko da.

Erakundearen inskripzio orria, beranduenez ere, taldeak parte hartu nahi duen kirol modalitatean (edo kirol modalitateetan) izena emateko azken egunean aurkeztu behar da.

A.2. - Taldeak jardueretan inskribatzea



“Erakundearen inskripzio orria” bete eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurkeztu duten erakundeek taldeak inskribatu beharko dituzte www.alava.net orriaren bidez horretarako egin den aplikazio informatikora sartuta.

Horretarako, erakundearen inskripzio orria izapidetu ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak eskola kiroleko web orriaren identifikazioa eta sarbide gakoa emango dizkio erakundeari.

Lehenengoz inskribatzen diren parte-hartzaileek (jokalari, entrenatzaile, ordezkari edo epaileak) alta hartu beharko dute kirolarien fitxategian, kirol talde batean inskribatu aurretik. Hori egiteko, familia liburuaren edo NANaren fotokopia (ezinbestekoa 14 urte betez geroztik) aurkeztu beharko dute.

Kirol Zerbitzuak parte hartzaileari identifikagarria esleitu ondoren, erakundeak dagokion taldean inskribatuko du parte hartzailea, eskola kirola informatika aplikazioaren bidez. Inskribatutakoan, tresna informatiko beraren bidez, agiriatarako argazki bat kargatuko da, eskola lizentzia balioduntzeko.

Eskola Kirolari buruzko Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoa betetzearren (125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa), erakunde parte-hartzaileek, orobat, “langile teknikoak, epaileak eta arbitroak” inskribatu beharko dituzte, eskola kirolaren 2018-2019 programan sartzeko.

A.3.- Arabako eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko lizentziak

Inskripzioa Internet bidez izapidetu eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailak balioztatu ondoren, banakako lizentzia prestatuko da.

Jokalari, entrenatzaile edo ordezkariak dagokien lizentzia eduki beharko dute, unean-unean indarrean den eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko sinestamendua emango diona. Lizentzia bat emango da parte hartzailea inskribatu den kirol modalitate bakoitzeko.

Kirolariek nahitaez aurkeztu behar dute lizentzia parte hartzen duten lehiaketa ofizial guztietan.

Adingabeko parte-hartzaileen lizentzietan, aitaren, amaren edo tutorearen sinadura agertu behar da. Sinadura horren bitartez, ezagutu eta onartu egiten dira erakundearen eta adingabea inskribatutako jardueraren ezaugarriak eta aseguru estalduraren sistema, eta orobat adierazten da adingabearen osasun egoera kirol horretan aritzeko modukoa dela, erantzukizuna norberaren gain hartuta.

Lizentzian, nahitaez agertu behar da kirolariaren argazkia.

A.4.- Aurkeztutako datuak balioztatzea

Arabako eskola kiroleko 2018-2019 kanpaina dela eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailean izapidetutako inskripzio orriak edo formularioak erakunde eskatzaileen ordezkari batek sinatuta egon behar dira.

A.5. - Kirolarien eta taldeen altak eta bajak



2018-2019 kanpainan parte hartzen duten kirolarien altak eta bajak ikasturte osoan zehar egin ahal izango dira, kirol modalitate bakoitzerako adierazitako epearen barruan erregistratu diren taldeen barruan.

B. Eskola kiroleko 2018-2019 kanpainaren barruan irabazteko xederik gabeko erakundeek eskatu behar dituzten baimenak eta kasu bereziak

B.1.- Xedea

Honen bidez arautu nahi da zer gutxieneko baldintza bete behar diren baimenak eskatzeko eta nola jokatu behar den eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan gerta litezkeen kasu berezien aurrean.

B.2. – Ikasleak, lehiaketa ofizialean, adinari dagokiona baino maila bat goragoko kategorian parte hartzea eskola kirolean

Adinari dagokiona baino maila bat goragoko kategorian parte hartu ahal izateko, idatzizko eskaera aurkeztu beharko zaio Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, eta eskakizun hauek bete behar dira:

- a) Norberaren kategoriari dagozkion urteetako azkenekoan jaiotakoa izatea
- b) Taldean aritzeko kirol modalitatea izatea
- c) Beheragoko kategoriakoen kopurua ez izatea taldean inskribatutako kide guztien ehuneko 50 baino gehiago
- d) Kirol modalitate horretan maila bat beheragoko kategoria ere deialdian sartuta egotea
- e) Adinari dagokiona baino maila bat goragoko kategorian aritzeko baimena edukitzea, aitak, amak edo tutoreak emana. Baimena emateak berekin ekarriko du kirol horretan aritzearen arriskuen erantzukizuna bereganatzea
- f) Medikuen agiria, kirolaria kirol horretan eta eskatutako kategorian aritzeko gauza dela adierazten duena

Kirol modalitate baten goragoko kategoria batean parte hartzen duen ikasleak ez du galduko bere adinari dagokion kategoria beste kirol modalitate batzuetan aritzeko; hala ere, behin lehiaketa hasi eta gero, ezin izango du parte hartu kirol modalitate horretan bertan bere adinari dagokion kategorian.

Futboleko benjaminak 2. Urtea (2009) eta kimuak 2. Urtea (2007) modalitateetan ezin da lehiaketa horietan parte hartu adinez egokitzen den kategoriaren hurrengoan.

B.3. – Ikasleak, lehiaketa ofizialean, adinari dagokiona baino maila bat beheragoko kategorian parte hartzea eskola kirolean.

Adinari dagokiona baino maila bat beheragoko kategorian lehiatzeko, idatzizko eskaera aurkeztu behar zaio Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, eta baldintza hauek bete behar dira:



- a) Azalpen laburra: zergatik behar diren goragoko kategoriako kirolariak.
- b) Parte hartu nahi den kategoriari dagokion urtearen aurrekoan jaioa izatea.
- c) Taldean aritzeko kirol modalitatea izatea.
- d) Honako baldintza hauek betetzeko konpromisoa hartzea idatziz:
 1. Baimendutako jokalariek ez dutela emango jokoan partidaren guztirako iraupena baino ehuneko 50 gehiago.
 2. Halaber, goragoko kategoriako jokalaria bati baino gehiagori ematen bazaie talde berean jokatzeko baimena, ez dutela batera jokatu.

Eskaera aztertu ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak idatziz ebatziko du aldaketa baimentzea edo ukatzea.

Futboleko benjaminak 2. Urtea (2009) eta kimuak 2. Urtea (2007) modalitateetan ezin da lehiaketa horietan parte hartu adinez egokitzen den kategoriaren aurrekoan.

B.4. – Ikasleak matrikulatuta dagoen kirol zentroaz besteko kirol erakunde bateko taldean aritzea eta erakunde biek ikaslearen izena eman nahi izatea.

14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolarenak, xedatutakoaren arabera, eskola adineko kirola funtsean ikastetxeen bidez egituratzen da, betiere kirol klub eta elkarteek eta gurasoen elkarteek aktiboki lagunduta.

Baldin eta kirol erakunde batek kirolari bat modalitate eta kategorian jakin batean inskribatu nahi badu, eta kirolari horren ikastetxeak modalitate eta kategorian berean inskribatu nahi badu, ikastetxeak izango du lehentasuna kirolaria inskribatzeko. Halako kasuetan, kirolaria bere ikastetxea ez den kirol erakunderen batekoa izango bada, kirol erakunde horrek ikastetxeari kasuan kasuko baimena eskatu beharko dio eta Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko du.

B.5. – Kirol jarduerak kontzentrazio araubidean egiten dituzten kirol erakundeek parte hartzea.

Kontuan izanik Arabako biztanleria sakabanaturik dagoela eta ikastetxe batzuetan oso matrikula gutxi egiten dela, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoeraren bereziagatik hala komeni bada, baimena eman dezake hainbat ikastetxetako kirolariek osatutako taldeek parte hartzeko. Eskabidea Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari aurkeztu behar zaio, eta, bertan taldea hala eratzeke gertatzen diren inguruabarrak azaldu. Kasu honetan, ikastetxetzat hartuko dira.

B.6. – Federazio lizentzien izapidetzearen eskaera.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, lurralde historikoetako organo eskudunek prestatu behar dituzte eskola kiroleko programak ikasturte bakoitzerako. Gainera, foru organo horiek, aparteko kasuetan, baimena eman dezakete programaz kanpoko kirol txapelketak antolatzeke eta behe kategorietako federazio lizentziak izapidetzeko.



B.6.1.- Arabako kirol federazioek ezin diete federazio lizentziarik izapidetu eta/edo eman 2005az gero (urte hori barne) jaiotako eskola umeei, non eta, eskabidea aurkeztu ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak ez duten berariazko baimenik lortzen.

B.6.2. - Federazio lizentziak izapidetzeko eskumena Arabako dagokion federazioei edo federatu beharreko eskola umeak inskribatuta dauden irabazteko xederik gabeko elkarteei dagokie.

B.6.3.- Baimen eskabidearekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak emandako inprimaki normalizatuak.
- Federatuko diren kirolarien zerrenda (izena, deiturak eta jaioteguna).
- Federazio lizentziak izapidetzea komenigarria dela frogatzen duten bestelako agiri batzuk.

B.6.4.- Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak irizpide hauek aplikatuko ditu baimenak emateko:

- Zer eragozpen dagoen eskola kiroleko lehiaketa bat Arabako Lurralde Historikoan edo beste lurralde historiko batzuetan egiteko.
- Kirolariaren kirol proiektzioa.
- Aplikatu beharreko arautegiaren arabera eskola kirola gidatzen duten printzipioekin bat datorren parte-hartzea bultzatzea: Euskadiko Kirolari buruzko Legea (14/1998 Legea); 125/2008 Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolari eta eskola kiroleko programei buruzkoa.
- -Ea bateragarriak ote diren Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko lehiaketak eta goi mailako lehiaketetan parte hartzea.
- Eskolako Kirolaren Euskal Batzordean hartutako erabakiak.

B.6.5.- Federazio lizentziek indarrean den uneko kirol denboraldirako balioko dute.

B.6.6.- Eskaera, berriz, eredu normalizatuaren arabera egin beharko da, atal guztiak behar bezala beteta.

B.6.7.- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5. Gasteiz), aldundiaren beste erregistro batzuetan eta hitzartutako udaletako erregistro orokorretan aurkeztu ahal izango dira eskaerak; edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, beste honek aldatua: 4/1999 Legea, urtarrilaren 13koa) 38.4 artikuluan ezarritako bideak ere erabili ahal izango dira. Halaber, eskaera horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez izapidetu ahalko dira.

B.6.8.- Behin federazio lizentzia izapidetzeko baimena eman ondoren, kirolariei baja emango zaie eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan, baimen horren xede den kirol modalitatean.



B.6.9.- Kontuan izanda zein den zenbait kirol modalitatearen benetako egoera, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak, salbuespenez, baimena eman ahalko du aldi berean eskola lizentzia eta federazio lizentzia izateko

C. Konfidentzialtasuna

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Arautegia (DBEO), datuen babesarena, betez, Arabako Foru Aldundiak bermatzen du zure erakundeak emandako datuak konfidentzialak izango direla, eta ez direla jakinaraziko legez gaitutako kasuetatik kanpo. Halaber, segurtasun neurri jakinak ezartzen dira (DBEOren 24. art.), urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuarekin bat etorritik identifikaturiko balizko arriskuen aurrean. Errege dekretu horren bidez, administrazio elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen da. (II. eranskina).

Foru aginduaren V. eranskina

Eskola kirolaren 2018-2019 kanpainaren barruan erakunde laguntzaileek parte hartzeari buruzko arautegia.

1. - Xedea.

Estaldura teknikoa eman behar zaio 2018-2019 kanpainan Eskola kiroleko programaren barruan egingo diren jardueren garapenari. Horregatik, laguntzaile arituko dira irabazteko xederik gabeko entitate batzuk, jarduera horien alderdi askotan esperientzia egiaztatua dutenak (kirol antolaketa, antolaketa teknikoa, formakuntzaren antolaketa eta hainbat esparrutakoa).

Horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, erakunde laguntzaileekin batean, kirol modalitate guztien lehiaketa arautegiak egingo ditu.

Jardueretarako laguntza teknikoa hauxe da: jardueraren alderdi teknikoen jarraipenean, koordinazioan eta zuzenketan aritzea.

Lehiaketa jardueretarako laguntza teknikoak edo kontrol teknikoak honako hauek bilduko ditu: egutegiak eta jardunaldiak prestatzea, epaileak izendatu eta kontrolatzea, aktak biltzea, egutegiak eta sailkapenak prestatu eta banatzea, eta lehiaketa batzordearen bitartez kirol diziplinako araubidea aplikatzea.

Gainerako jardueretan, laguntza teknikoak honako hauek bilduko ditu: irakaskuntzarako, balioak antzemateko, teknika hobetzeko eta abarretarako programak diseinatu, egin eta gauzatzea.

2. - Onuradunak.

Arabako kirol federazioak, edo ezin bada, Arabako Foru Aldundiko organo eskudunek izendatutako klubak izango dira onuradun.

3. - Parte hartzeko baldintzak

3.1.- Arabako Eskola Jokoak



Erakunde laguntzaileak hitzeman beharko du beteko duela eta betearaziko duela, bere eskumenen esparruan, kirol federazioen edo bestelako kirol erakunde batzuen eraketa eta funtzionamendua arautzen duen indarreko legeriak xedatzen duena.

Era berean, honekin zerikusia duten kirol federazioek hitza eman beharko dute ez dutela emango ez izapidetuko benjamin, kimu edo haurren kategorietarako lizentziarik, ez emango 2018-2019 kanpainako eskola kiroleko programan sartuta ez dauden jarduerak antolatzeke edo horrelakoetan parte hartzeke baimenik, babesik ez homologaziorik, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren idatzizko berariazko baimenik gabe.

Lankidetzaz zein kirol modalitateko hitzartu den, erakunde laguntzailea kirol modalitate horren garapen teknikoaren arduraduna izango da. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren idatzizko baimena izango du horretarako.

Erakunde laguntzaileak bere gain hartzen du:

a) Hitzartutako kirol modalitateko laguntza teknikoaren arduraduna izendatzea; arduradun horrek jarduera guztien koordinazioa hartuko du bere gain, eta bera izango da Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekiko harremanetarako ordezkari iraunkorra.

b) Lehiaketako egutegiak egitea, arautegi honetako benjaminen, kimuen, haurren eta kadeteen kategoriei buruzko idatz zatietan adierazitakoari jarraituz. Egutegiak, bestalde, lehiaketa hasi baino lehen onartu behar dira.

Taldeko kiroleko, larunbat goiza izango da ohiko lehiaketa eguna.

Buruz buruko kirolak larunbat goizean nahiz arratsaldean edo igande goizean joka daitezke. Igande arratsaldean jarduerak egiteko, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena beharko da.

Aurrekoa gorabehera, erakunde laguntzaileek eskatuz gero, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimendu ahalko du eskola kiroleko lehiaketak beste egun batzuetan egin ahal izatea.

c) Lehiaketaren aldietako bakoitzean, lehiaketetako agiriak jasotzea eta sailkapenak egitea, bai eta parte-hartzaileei behar duten informazioa ematea ere.

Lehiaketak ezinbestekoa denean baino ezingo dira aldatu, eta horrelakoetan, kirol modalitate bakoitzaren berariazko arautegian adierazitakoa aplikatuko da.

d) Lehiaketa gainbegiratzea eta gertatzen diren gorabeherak Euskara, Kultura eta Kirol Sailari jakinaraztea.

e) Irabazteko xederik gabeko erakundeekin lankidetzan antolatzea lehiaketa jarduerak, hori dela-eta bete beharreko baldintza zehatzen arabera.

f) Lehiaketak egiteko behar diren epaileak eta arbitroak izendatzea. Prestakuntzarako bideak ezartzen ahaleginduko da erakunde laguntzailea, Arabako Eskola Kiroleko Jokoetan parte hartzen duten ikastetxeetako eta irabazteko xederik gabeko erakundeetako kideen arteko epaile-arbitroak izendatu ahal izateko.



Epaile-arbitro horiek zainduko dute berek zuzendu beharreko kirol partidetan parte hartuko duten guztiek 2016-2017 ikasturteko lizentzia erakuts dezaten partida bakoitza hasi aurretik.

g) instalazio eta/edo material berezia eskatzen duten jardueretan (atletismoa, igeriketa, eta abar), jarduera horiek antolatzen dituen erakunde laguntzaileak izango du instalazioa eta/edo material berezia kudeatzeko ardura.

h) Erakunde laguntzaileak Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekin elkarlanean jardungo du joan-etorriekin loturiko guztian, nahiz eta ikasturte honetan garraioa eskatzeko ardura zuzen-zuzenean erakunde parte-hartzaileena izan, horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bitartez.

i) Erakunde laguntzaileak laguntzen duen kirol modalitate bererako Arabako Eskola Kiroleko Jokoez kanpo antolatzen diren proba, lehiaketa eta jarduera guztietan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekin batean jardutea, eta horiek direla eta, bere eskumenekoak diren arloetan egoki diren neurriak ezartzea, jarduera horiek eskola kirolaren eduki eta helburuekin bat etor daitezten.

j) Entitate laguntzaileak lehen auzialdiko diziplina eginkizuna beteko du, Eskola Kirolerako berariaz eraturako “Lehiaketa Batzordea” dela bide.

Zigor proposamena Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari jakinaraziko zaio, eta ez da irmoa izango sail horrek berretsi arte.

k) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuko 26. artikuluan (“Aseguruak”) ezarritakoarekin bat etorritik, erakunde laguntzaileek “teknikariak eta epaileak” inskribatu behar dituzte, eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako programan sartzeko.

3.2. - Eskola kiroleko 2018-2019 kanpaina: eskola kirolaren teknika hobetzeko jarduerak.

Erakunde laguntzaileek eskola kiroleko 2018-2019 kanpainan inskribatutako kirolarien teknika hobetzeko jarduerak egin ahal izango dituzte.

Jarduera horien finantzaketa lankidetzaz hitzarmenetan zehaztuko da.

3.3. - Eskola kiroleko 2018-2019 kanpaina: eskola kirolarientzako hasiera ikastaroak.

Erakunde laguntzaileen ardura izango da hastapen ikastaroak antolatzea ikasturte jakin bati dagokion kirol modalitatean inskribatu ez diren ikasleentzako. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak eta erakunde laguntzaileek hitzartuko dituzte ikastaro horiek. Eskolan eta ikasleen artean ezagutuak eta zabalduak izateko beharrezkoak diren kirol modalitateetarako dira.

Jarduera horien finantzaketa lankidetzaz hitzarmenetan zehaztuko da.

4. - Kategoriak

Orokorrean, jarduerok eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako arautegiaren I. eranskineko 3. puntuan zehaztutako kategoriei egokituko zaizkie.

5. - 2018-2019 denboraldiaren hasiera eta amaiera



Orokorrean, jarduera hauek eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako arautegiaren II. eranskineko 4.4 puntuan zehaztutako egunetan gauzatzeko moldatuko dira. Hala ere, kasu berezietan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egun horiek aldatzeko baimena eman dezake.

6. - Lankidetzaren hitzarmenak erakunde laguntzaileekin

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 15.5 artikuluari jarraituz, erakunde laguntzaileekin egingo den lankidetzaren hitzarmenean jasoko dira xedapen horiek guztiak; hitzarmen hori federazio bakoitzaren jarduerak hasi baino lehen izenpetu beharko da, eta, gutxienez, honako eduki hau eduki beharko du:

- Elkarri informazioa emateko eta elkarrekiko koordinaziorako hitzarmena.
- Entitate laguntzaileek laguntza teknikoak ematerakoan beteko dituzten eginkizunak garatzea.
- Garatu beharreko kirol programak.
- Arabako Foru Aldundiak lankidetzaren horren ordainetan egin beharreko ekarpenen zenbatekoak.

7. - Aurkeztu beharreko agiriak

Erakunde interesdunak adierazi behar du Arabako Eskola Kiroleko Jokoetan, kirol teknika hobetzeko jardueretan eta hastapen unitateetan lankidetzaren aritzeko asmoa, 2018-2019 kanpainaren plangintza proiektu labur baten bidez, eta proiektu horretan azaldu behar du zer jarduera gauzatu diren eta zein aurrekontu duen bakoitzak.

Gainera, informazio ere eman dezake, beharrezkoa den guztia, eskola kiroleko programa behar bezala egiteko interesa badu.

Parte-hartzaileen jarduerari buruzko bestelako datu osagarri batzuk eskatu ahal izango dira.

Beharrezkotzat jotzen bada proiekturen batean materiala erostea, aurrekontu zehatza ere aurkeztu beharko da, enpresa hornitzaileak edo etxe komertzialak behar bezala konpliturik.

Eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango die akatsak zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko; eskatutakoa bete ezean, eskabidea artxibatu egingo da, eta interesdunak bertan behera utzi duela ulertu beharko da.

8. Konfidentzialtasuna

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Arautegia (DBEO), datuen babesarena, betez, Arabako Foru Aldundiak bermatzen du zure erakundeak emandako datuak konfidentzialak izango direla, eta ez direla jakinaraziko lege gaitutako kasuetatik kanpo. Halaber, segurtasun neurri jakinak ezartzen dira (DBEOren 24. art.), urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuarekin bat etorritik identifikaturiko balizko arriskuen aurrean. Errege dekretu horren bidez, administrazio elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen da. (II. eranskina).



Foru Aginduaren VI. Eranskina

Eskola kiroleko 2018-2019 kanpaina: irabazteko xederik gabeko erakundeen joan-etorriari buruzko arautegia.

Hemen arautzen da nola egin behar dituzten garraioa eskatzeko eskabideak eskola kirolaren 2018-2019 kanpainarako izena emanda dauden irabazteko xederik gabeko erakundeek, joan-etorriak egin behar dituztenean lurralde horretan zehar egoitza Arabako Lurralde Historikoan izanik.

1.- Arabako eskola kiroleko partidetarako joan-etorriak.

Arabako eskolako kiroleko jokoen barruko jarduerak dira Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatutako eskola lehiaketa ofizialak.

Garraioak nolako den kontuan hartuta, arau hauek aplikatuko dira:

1.1. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak jartzen dituen garraioak.

Bidaiarien kopuruak autobusa kontratatzeke egokiera ematen badu, garraioak hau jarriko da interesdunen esku, horretarako ezarritako aurrekontu mugen barruan.

Talde guztiek, zerbitzu hau erabili ahal izateko, apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen duen arduradun bat izan behar dute, dekretu horretan eskola garraioaren eta adingabekoen garraioaren segurtasunerako baldintzak ezarri baitira. Batez ere, arduradun horrek baldintza hauek bete behar ditu:

- 2018-2019 kanpainako eskola kirolerako lizentzia edukitzea.
- Adinez nagusi izatea.

Ezingo da erabili Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ezarritako autobus zerbitzu hori lehen aipatutako arduraduna autobusean joan ezean.

1.1.1.- Eskabidea.

Interesa duten erakundeek Eskola Kiroleko aplikazio informatikoaren bitartez (taldeen eta kirolarien inskripzioak egiteko erabiltzen den aplikazio berbera) egin beharko dute eskabidea, talde bakoitzak bana, lehiaketa egunaren aurreko asteazkeneko 08:00ak baino lehenago, garraioak honen erabilera eskatuz. Erakunde bakoitzak, hala, aplikazio horren bitartez eskatzen diren datuak eman beharko ditu eta egiaztatu behar da berresten dela egindako eskaerari buruzko gutzia (irteera ordua, tokia, norakoa...), eranskin honen 1.1.4. puntuan adierazten denaren arabera.

1.1.2.- Garraioak eskatu eta gero ez erabiltzea

Behin garraiorako aste bakoitzeko diru kopuruak argitaratu ondoren, salbuespenez eta modu arazoituz baino ez dira onartuko aldaketak eta baliogabetzeak.

Erakunde batek, joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erabakitzen badu, aldezturik jakinarazi gabe edo behar besteko epean jakinarazi gabe, ez duela erabiliko kontrataturiko



autobusa, edo ezin badu erabili gorago aipatutako laguntzaile hori ez edukitzeagatik, 2018-2019 denboraldian ez zaio berriz garraiobiderik emango.

1.1.3.- Programatutako jarduera zehatz baterako eskatutako garraiobidea erabiltzea, jarduera programatu hori gauzatu gabe.

Erakunde batek, aurretik jakinarazi gabe, programatutako jarduera bat ezin gauzatzea eragiten badu, eta talde bisitariak, jarduera horretan, eskatutako garraiobidea erabili badu, antolatzaileek garraiobiderik gabe utz dezakete 2018-2019 denboraldi osorako.

1.1.4.- Eskatutako garraiobideei buruzko informazioa non egongo den.

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskaera guztiak jaso ondoren, autobusak esleituko dizkie taldeei. Berretsitako esleipenak posta elektronikoz bidaliko zaizkie bai erakunde bakoitzari bai kasuan kasuko federazioari. Halaber, erakunde bakoitzak informazio hori kontsultatu ahal du aplikazio informatikoan.

1.2.- Arabako Foru Aldundiak jartzen ez dituen garraiobideak

Arabako Kirol Jokoetan parte hartzen duen erakunde batek garraio zerbitzua eskatu eta, bai joan-etorria edo ibilbidea egin behar duten bidaiarien kopuruarengatik, bai ordutegien bateraezintasunarengatik edo bestelako arrazoiengatik, ezezkoa erantzuten bazaio, beste garraiobide kolektibo batean edo ibilgailu partikularretan egin ahal izango du joan-etorria.

2.- Arabako eskola kiroleko jokoetan parte hartzen duten ekipo edo taldeen kirol hastapeneko jarduerak, hastapeneko ikastaroek, teknika hobetzeko jarduerak eta entrenamenduek eragiten dituzten joan-etorriak.

Bidaiarien kopuruak autobusa kontratatzeke egokiera ematen badu, garraiobide hau jarriko da interesdunen esku, horretarako ezarritako aurrekontu mugen barruan.

Entitate batek, 2018-2019 kanpainako eskola kiroleko programaren barruko edozein jarduera garatzeko –eskola kiroleko jokoetan parte hartzen duten ekipo edo taldeen entrenamenduak barne– joan-etorriak egin behar baditu inguruko hainbat herritako ikasleekin, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak ematen duen inprimakia behar bezala beteta egin beharko du eskaera.

2.1.- Eskabideak aurkezteko epeak

Eskabide bat bakarrik aurkeztu behar da ikasturte osorako.

Bertan, datu hauek azaldu behar dira: ibilbidea, geldialdia egin beharreko herriak, herri bakoitzean jaso edota utzi beharreko haurren kopurua, eskaera behar bezala kudeatzeko behar diren datu guztiak.

Kirol Zerbitzuak ez ditu bere gain hartuko eskatu gabeko eta berak kudeatu gabeko zerbitzuek eragiten dituzten fakturak.

2.2.- Garraiobidea eskatu eta gero ez erabiltzea



Erakunde batek, joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erabakitzen badu, aldez aurretik jakinarazi gabe edo behar besteko epean jakinarazi gabe, ez duela erabiliko kontraturiko autobusa, edo ezin badu erabili gorago aipatutako laguntzaile hori ez edukitzeagatik, 2018-2019 denboraldian ez zaio berriz garraio biderik emango.

3.- Programaz kanpoko joan-etorriak.

Ondoko joan-etorri hauek EZ dira izapidetuko:

- a) Herri baten barruan egiten direnak.
- b) 7 km baino gutxiagora dauden herrien artean egiten direnak.
- c) Arabako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako erakundeek egiten dituztenak, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena badute ere 2018-2019ko eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko.

Foru Aginduaren VII. eranskina

Prozedura arautzea Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeei baimena emateko 2018-2019 kanpainan eskola kirolaren programaren barruan ez dauden kirol jarduerak antolatzeke eta eskola adineko kirolariek horietan parte hartzeko.

Eskola kiroleko urteroko egitasmoak landu, onartu eta gauzatzea Arabako Foru Aldundiari dagokio, halaxe xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko ekainak 11ko 14/1998 Legeak.

Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, 11.2 artikuluan xedatzen duenez, lurralde historikoetako organo eskudunek baimena eman ahal izango dute, salbuespenez, eskolako kirolaren programetan jasotzen ez den kirol lehiaketak antolatzeke eta horietan parte hartzeko.

Era berean, aipatutako dekretuaren 11.3 artikulua xedatzen duenez, foru organoek eskola kirolaren jardueren urteko programetan jaso gabeko jarduerak baimentzeko prozedurak arautu behar izango dituzte.

1. - Xedea



Foru Agindu honen helburua da 2018-2019 Eskola Kanpainaren barruan sartzen ez diren eskola kiroleko jarduerak antolatzeko eta haietan parte hartzeko baimenak emateko prozedura arautzea.

2. - Eskaerak

Esandako kirol lehiaketak antolatzeko eta haietan parte hartzeko baimen eskaerak Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, edo bestela, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, jarduera horiek hasi baino bi hilabete lehenago behintzat, aurrerapen txikiagoarekin aurkezteko salbuespenezko arrazoirik ez badago.

3. - Dokumentazioa

Baimen horiek eskuratu nahi dutenek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Baimen eskaera, behar bezala betea, Kirol Zerbitzuak emandako ereduaren arabera.
- b) Baimena emateko arrazoiak eta, bereziki, ekintzak Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan eta eskola kiroleko 2018-2019 ikasturteko ekintza programan jasotako printzipioetara egokitzen diren ala ez egiaztatzeko agiria.
- c) Lehiaketetan parte hartuko duten eskola umeen zerrenda eta egitekoa den jardueraren ezaugarriak (lekua, egunak, ordutegia, iraupena, medikuen kontrola, osasun laguntzarako aseguruak eta abar).
- d) Antolatzaileen erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.
- e) Beste datu jakingarri batzuk.

4. - Erabakia

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari dagokio 2018-2019 ikasturteko programaren barruan sartzen ez diren kirol lehiaketak antolatzeko eta horietan parte hartzeko baimenen berri izatea eta haiei buruzko ebazpenak ematea.

Eskabideak ez baditu betetzen araudi honetako 3. artikuluan adierazten diren baldintzak, edo eskabidearen punturen bat argitu edo justifikatu behar bada, eskabidea aurkeztu duenari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa konpontzeko edo eskatutako agiriak edo argibideak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

Baimen eskaerak eskatzaileak parte hartu nahi duen jarduera egin baino 10 egun lehenago ebatziko dira beranduen jota.

Esandako epean ebazpenik eman ezean, ulertuko da eskaerari ezezkoa eman zaiola, nahiz eta ondoren idatzizko ebazpena emango den.

Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena jaso ondorengo hilabeteko epean. Bestela, zuzenean administrazioarekiko



auzi errekurtsua aurkez daiteke dagokion epaitegian edo auzitegian, jakinarazpena jaso ondorengo bi hilabeteko epean.

5. - Baimenak

Baimenak emateko, hainbat baldintza betetzeko eskatu ahal izango zaie eskatzaileei.

Baimena emateko ebazpenean jasotako baldintzak betetzen ez badira, diru-laguntza itzultzea eskatu ahal izango da.

6. - Arauak haustea

Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak jakiten badu onartutako programetan sartuta ez dauden eskola kiroleko lehiaketak egiten ari direla baimenik gabe, erabakiko du jarduera horiek bertan behera utz daitezela berehala.

Artean lehiaketarik egin ez bada, Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak lehiaketen gaineko informazioa eskatu ahal izango du eta, bidezkoa baderitzo, debekatu egingo ditu jarduerok.

7.- Eskola adinean diren kirolarientzako kirol jarduera batzuk eskola kiroleko 2018-2019 kanpainen sartu gabe daudenean, badago salbuestea kirol jarduera horietan parte hartzeko baimena eskatzen kasu batzuetan.

Kontuan izanda zein irizpideri jarraitu behar zaion baimena lortzeko lehenago Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen txostena behar den kasuetan, ez da izango beharrezkoa baimena eskatzea aldi jakin batzuetarako antolatutako jardueretan parte hartzeko, baldin eta lehiaketa ez bada ofiziala, kasu jakin batzuetan baino ez bada egiten eta ez baditu oztokatzen Eskola Kiroleko Programaren jarduerak (hainbat kasu daude; halakoetan erakunde batek gonbidapena jasotzen du sailkapenerako balio ez duen proba/lehiaketa batean parte hartzeko, normalean udan). Hona hemen zein alditan izan behar duen:

- 2018ko abenduaren 21etik 2019ko urtarrilaren 6ra (Eguberrietako oporrak)
- 2019ko apirilaren 18tik 28ra (Aste Santuko oporrak)
- 2019ko ekainaren 10etik abuztuaren 31ra (Udako Oporrak)

